



**OÑATI**  
dabilen herria



# GIZARTERATZE ETA LANERATZE PROZESUETATIK DATOZEN PERTSONAK KONTRATATZEKO DIRULAGUNTZAK 2023

*Oinarriak 2022ko martxoaren 31ko Osoko Bilkuran onartuta*

## GIZARTERATZE ETA LANERATZE PROZESUETATIK DATOZEN PERTSONAK KONTRATATZEKO DIRULAGUNTZAK

### ERAKUNDE ONURADUNAK

- Oñatiko enpresak, banakako enpresaburuak, ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak.
- **BALDINTZAK:**
  - ✓ Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergan (JEZ) Oñatin alta emanda egotea.
  - ✓ Ogasunean eta Gizarte Segurantzian ordainketak egunean izatea.
  - ✓ Dirulaguntza publikoak eskuratzeko zigorrik edo debekurik ez izatea.

### KONTRATATUTAKO PERTSONEN BALDINTZAK

- Oñatin erroldatuta.
- Gizarteratze eta laneratze prozesuan edo prozesu hori amaitu berritan egotea.
- Laneratzeko enpresa baten bidez bideratuak izatea.

### KONTRATUEN BALDINTZAK

- Kontratu mugagabeak edo gutxienez 2 hilabeteko iraupena duten aldi baterako kontratuak. %50eko jardunaldia gutxienez.
- Kontratuen hasiera data 2022ko uztailaren 1a eta 2023ko ekainaren 30a bitartean.

## GIZARTERATZE ETA LANERATZE PROZESUETATIK DATOZEN PERTSONAK KONTRATATZEKO DIRULAGUNTZAK

### DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOAK ETA MUGAK

- Kontratu mugagabeak eta 6 hilabeteko edo gehiagoko aldi baterakoak, jardunaldi osoan: 3.000€.
- 2 eta 6 hilabete bitarteko aldi baterakoak, lanaldi osoan: 1.500€.  
Denbora partzialeko kontratuetan dirulaguntza jardunaldiaren proportzioan.
- %30eko gehikuntzak:
  - ✓ Emakumezkoak.
  - ✓ >55 urte.
- Enpresako eta deialdiko muga 5.000€

## GIZARTERATZE ETA LANERATZE PROZESUETATIK DATOZEN PERTSONAK KONTRATATZEKO DIRULAGUNTZAK

### DIRULAGUNTZEN ESKAERA

- Eskaera aurkezteko epea: 2023ko azaroak 30.
- Dokumentazioa:

#### AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- ✓ Eskaera-orria (E063)
- ✓ Laneratze enpresaren ziurtagiria (E064 - 1.eranskina)
- ✓ Erantzukizunpeko adierazpena (E065 - 2. eranskina)
- ✓ Dirulaguntza eskatzen deneko pertsonaren lan kontratua.
- ✓ Kontu korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria.

#### BITARTEKOTZAKO PLATAFORMATIK ESKATUKO DIREN ZERBITZUAK (uko egiten ez bada)

- ✓ Enpresako ordezkari legalaren NAN edo nortasun agiria.
- ✓ Ogasunean ordainketak egunean izatearen ziurtagiria.
- ✓ Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean izatearen ziurtagiria.
- ✓ Kontrataturiko langilearen Gizarte Segurantzako altaren ziurtagiria.

## GIZARTERATZE ETA LANERATZE PROZESUETATIK DATOZEN PERTSONAK KONTRATATZEKO DIRULAGUNTZAK

### NON ESKATZEN DA?

- Aurrez aurre: [Udaletxea](#) Foruen Enparantza 1, 20560 OÑATI  
Ordutegia: 7:30-15:30
- Internet bidez: [Hasi online tramitazioa zerbitzu telematikoetan](#)  
(<https://www.onati.eus>)
- Posta arrunta: Foruen Enparantza 1, 20560 OÑATI
- Informazio gehiago: 943003198 / [enplegu@onati.eus](mailto:enplegu@onati.eus)



**OÑATI**  
dabilen herria